

noiz edo noiz gehiago egin behar izaten dizkiet, jendeak lapurtu edo hondatu egiten dituelako.

Zure beste lanik ikus dezakegu Donostian?

Iaztik, Astoria hotelean Hitchcock aurki dezakezue. Urdaneta esploratzaile eta erlijiosoa Untzi Museoko balkoi batean dago eta, duela urte dezente, Aquariumerako baleak egin nituen. Antiguako auzoan, berriz, Olarain ikasle egoitzaren atarian, Txantxillo eta bere lagunak daude. Azkenekoak, Donostiako *belle époque*ko eskulturak dira eta oraingoz egin dudana lanik zailena direla esango nuke.

Orotara, zenbat panpin egingo zenuen urteotan?

Ba, ez dakit... Webgunea sortzerakoan www.figura1000.com izena jarri nion txantxetan. Ehundaka egin ditut, baina ez dut uste milara iritsiko naizenik, ez behintzat tamaina naturaleko panpinetan.

Egin duzun panpinik gorde al duzu?

Gehienak enkarguak zirenez, batzuek bukatu eta hurrengo egunean bertan eramaten zituzten, nik argazkirik atera gabe ere. Dena den, duela bizpahiru urtetik hona batzuk biltzen hasi naiz eta txukun-txukun jarri nahi ditut. Asko zirkuko pertsonaiaak dira, benetan existitutakoak; emakume potoloa, ipotxak, gizon erraldoia... Liburu batetik atera nituen beren datuak eta omenaldi modukoa egin nahi izan nien.

Zer egingo duzu zure hurrengo erronkak?

Batetik, Iruñean jarriko duten Mongoliari buruzko parke tematiko batean lanean ari naiz. Donostiar batzuk ari dira horretan lanean eta, besteak beste, Mon-



Ile-horiduneko haurrak, Antzoki Zaharreko atarian. Groseko artisauek Beldurrezko eta Frantasiako Zinema Asterako panpinak egiten ditu. ION LOPEZ

goliako herri-kirolak jaso nahi dituzte. Bestetik, Bizkaiko jantzi museo baterako pertsonaiaak egiten ari naiz. Bizkaiko jantzi tradizional ederrekin jantziko dituzte, eta nik panpinak egingo dizkiet, baina, noski, panpinak bertako itxurarekin egin nahi ditut; ez dut suediar lirain bat egingo, baizik eta hemengo jendea: indartsuagoa, zaharragoa, gure sudurrearekin... Hala eta guztiz ere, orain esku artean dudana proiekturik garrantzitsuenaren txotxongilo konpainiarena da.

Hasiera-hasieratik argi zenuen halako konpainia bat muntatu nahi zenuela. Zergatik itxoin duzu hainbeste?

Urteotan oso gustura aritu naiz panpinak egiten; dibertigarria da, itzela, oso anitza! Hontaz bizi garen bizpahiru lagunak pribilegiatu batzuk garela sentitzen dut. Sormen handiko lana da eta, gainera, oso ondo sentiarazten zaitu. Askotan nire buruari esan ohi nion besteentzako lan egiteari utzi eta nire txotxongiloetan lanean hasi behar nuela, baina zaila da... beti enkargu ederrak sortzen zaizkit eta ezin diet ezetz esan! Esaterako, Mongoliako parke tematikorako game-luak, *yack*ak, zaldiak etabar eskatu dizkidate; nola ez dut egingo! ●ogil@hitza.info



Frankstein, Saavedrak egindako beste panpinetako bat. o.g.s.

Antzoki Zaharreko atariko itxuraldatze beldurgarrienen egilea

➔ Donostiar askok Alberto Saavedraren lan asko ikusita izango dituzte, jakinarene gainean ez badaude ere. Artisauek 21 urte daramatza Beldurrezko eta Frantasiako Zinemaren Astean, beren panpinekin Antzoki Zaharreko ataria apaintzen. Baina zer eduki behar du panpin batek izua eragiteko? «Gaur egun, panpinek beldurrezkoak baino, barregarriak izan behar dute, oso zaila baita gazteak izutzea. Nik noizbait lortu dut, duela urte batzuk arratoi erraldoi batzuk egin nituen bezela; jendea nazka handia ematen zioten, behintzat», azaldu du Saavedrak. Krisia dela eta, Beldurrezko Astea aurrekontua jaisten eta jaisten joan da, baina Groseko atariko kalitatea mantentzen saiatzen da. «Panpin kopurua jaitsi behar izan dut, baina, hala ere, oso pozik nago, oso lan dibertigarria baita. Gainera jendea asko gustatzen zaio eta antzokiko sarrerari argazki pila ateratzen dizkiote». 30 haur ilehori beldurgarriak, Franksteinek, Egiptoko pertsonaia mitikoak, buruhezurak... denetarik ikusi ahal izango dugu Antzokiko Zaharreko atarian. Zerekin harrituko gaitu Saavedrak datorren urtean?